


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Irailak 20, 118. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**XABIER
ZUBIZARRETA**
Bigarrenkoz
alkate



Sergio

Baztertua gizartearen erdian



Matrikula zabalik!

- 2 eta 3 orduetako ikastaroak.
- Maila guztiak
- Matrikula-epea irailak 2tik 27ra arte.

Garibal Etorb., 14-3. (Sindikatoen etxea)
Arrasate Tfnoa: 77 03 69

aek

Izan euskaldun!

Erikite S.L.

Bideoa. Audioa. HI-FI. Auto-irradiak. Compact Disc. Musikaxeteak. Telekomunikazioak. Antenak. Irrati-telefonoak. Telefono mugikorak. Hifi akzesorioak. Megafonia-alogera. Bideo-grabazioak. Erosketa-aholkularitza. Multibisioa.

Erikite S.L.

Otalora, 25

A R R A S A T E

Tfnoa: 77 13 20

Faxa: 79 88 56

Onkyo. Teac. Harman Kardon. Nakamichi. Kef. JBL. Mission. Alpine. Topak. Macrom. Philips. Sony. Panasonic. JVC. Yaesu. MOBIRA. ICOM. Fagor. Televes. Ecler. Martin. Liberty. Zend. OHM.

Erikite S.L.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Bernardo Kortabarria. Iñaki Galdos

Publizitatea eta harpidetak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karnele Zuazubiskar, Juan Martin
Elexpuru, Eukeni Olabarieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,
Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA
taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea,
Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Bortizkeria nagusi

“**E**BBarren bizimoduaz ase” titulatu zuten kazetariak, duela aste pare bateko Arrasate Press honetan irakur genezakeen elkarrizketa. Ez dakit irakurleak gogoratuko ote duen Diego Martiartu arrasatear gaztearekin izandako solasaldi hura. Niri dagokidanez, oso zirrara sakonaren oroitzapena utzi zidan. Bortizkeria eta giza gezurraren lurrina zerion elkarrizketari. Ez, noski, Diegorengandik sortua, gazteak lekuko bezala ezagutaraziriko gizarte hartako errealtatearen isladapenetik, baizik.

Iragan ekainean, Heathrow aireportuko itxarongela zikin eta bidaiariz beteriko batean, ondoan eserita neukan Diegoren adineko gazte batek “Obabakoak” liburua atera zuen. Hizketan hasi eta Elorriokoa zela esan zidan, urtebete osoz Washingtonen bizi izan ondoren etxeratzen ari zela eta Euskadiko bakea dastatzeko irrikan zegoela azpimarratuz. Bere hitzen arabera, Estatu Batuetako hiriburuaren giro jasanezina zen elorriok izpirituan gehien inpaktatua zuena: gau batean tabakoa eroatera kaleratu zen adiskidearen eraiketa kontatu zidan, zehatz-mehatz.

Ez naiz tentaldian eroriko eta, beraz, ez natzaizue mundu askearen

prototipoa dirudien erraldoiari buruzko nire iritziak azaltzen hasiko. Ez lidake onik ekarriko, oraindik ere estatubatuarren esku zuzen eta garbiaz sinesten duten inozoengandik. Beraz, ahantz dezadan kapitulu hori, izan ere -bestalde- giza bake gardena gaurregun inon aurkitzea ariketa zaila baita, kolore bateko zein besteko herrialdeak izanda ere. Eki eta mendebal, hego eta ipar gizarteak bizitza-bortizkeriak jota daude, pertsona baten eskubideak bestearenak hasten diren puntuan amaitzen direla aldarrikatzea paper bustia bilakatu delarik. Egun, tamalez, gizabanakoaren eskubidearen neurria auzokoari dagokio mugatzea. Eta errukarri galanta bere protesta azaltzera ausartzen dena! Haren gainera indartsuagoaren zigorra ezezik legearena ere jausiko da eta.

Filosofo eta soziologoek haizatzten duten modernotasunak ez dio pertsonari mesederik egiten, horren askatasun naturalaren oinarrietan egundoko zartakoa suposatzen bait du, indarraren erresumatik zuzendutakoak. Gaurko gizakiaren jarrera-eskeman zientzia, teknologia, ekonomia eta politika arloek diraute bizirik; etika eta estetika, ordea, oroitzapenetako kutxara pasatu dira.

Josemari Velez de Mendizabal

HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra, belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate

comercial san juan

Garibal, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta oparidenda

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

E.S.T.U.D.I.O
INTERIORISMO A

- Proiektuak
- Diseinuak
- Obra-Zuzendaritza
- Berrikuntzak
- Erakuskien eraketa (Eskaparatismoa)
- Anagramak

Garibai, 3 bis
ARRASATE
Tfnoa: 77 01 44

**Taberna lanetarako,
neska euskalduna
behar da.**

Tfnoa: 945 - 44 50 86

**Independentziaren inguruan
zarata gutxi**

Txunditua nauka erabat azken egunotan Euskal Herrian ematen ari den prozesu politikoak.

Ekialdeko gertaerak izan zuten nonbait eraginik Estatuko herrialde nazionalistetan eta han-hemenka laster batean ikusi ahal izan genituen independentziaren aldeko adierazpen eta eskariak. Prentsa, irrati eta telebistan gure herriko politikari eta hizlarien esamesak entzuteko aukera izan genuen, zenbait herritan mozio sinbolikoak aurkeztu eta onartu ziren eta ezer gutxi gehiago.

Mass-mediatan independentziaren inguruan sortarazi den eztabaidak ez du herrian isladarik izan.

Hau idazten duenak, seguruenik zuetariko askok bezala, independentzia euskaldunon nahirik preziatuenera zela uste zuen, eta beraz, testuingurua aprobeztatuz, mozioak udal guztietan aurkeztu eta askoz zarata gehiago aterako genuela independentziaren auziaz. Bai zera! Ez zaratarik, ez ezer.

Batetik, zenbait alderdiren interes anti-independentista ikusi da, besteen interes sasi-independentista eta herritarrek, azkenik, inolako interesik ez. Trantsizioan emandako urte guzti hauek horrenbestearainoko eragina izan ote dute bada gu guztiongan?

A. U.


Akordioak

Badirudi azken albisteen arabera, EAJ eta PSOEn artean sinatu berria dela azken alderdi hau gure herriko alkatetzara altxatzeko akordioa.

Ez dakit nik, akordio honek oihartzunik izango duen ala ez, PSOeko hautagaia izango den ala ez etorkizunean Arrasateko alkate. Dena den, horrelako zerbait gertatuko balitz, eta ondorioz akordioa apikan eta aurrera eramango balitz, EAJren udal-politika erabat gaitzesia geldituko litzateke. Pakto hori Arrasateko interesen aurkakoa da erabat, eta are gehiago, herriko gehiengoak onartzen ez duen paktua da.

EAJk, Nekane Iglesias jarriko luke udaletxeko timoian, oraintxe egondako kontsentsua apurtuz. Nik ez dakit herritarren erantzuna zein izan daitekeen; edozein modutan ere, egin zaigun iraina ez da nolana hiko; goi mailatan egindako paktua da hau, gure herria kontuan hartzen ez duten alderdi eta pertsonen artekoa.

Txoribeltz




Zer deritzozu gobernuaren zatiketari?



Elena Hernandez
(Ikaslea)

Oso ondo. Gobernua ez zegoen ondo Euskadi eramateko. Hala ere, PSOErekin okerrago joango da.



Jesus Mari Domingos
(Ikaslea)


Ez dakit ezer. Ez dakit zer gertatzen den.



Sebastiana Gonzalez
(Etxekoandrea)

Nahaste bat iduritzen zait. Beraiek ere ez dira aklartzeten...

Ejenploa ematen hasi beharko lukete.



Jose Angel Legorburu
(EYAKo langilea)

Jakina zen zer gertatu behar zuen. Uste dut PSOEK abertzaleen batasunaren kontra egindako ahaleginak bere fruituak eman dituztela. Gobernua ondo zebilela iruditzen zait eta beraz ez deritot ondo zatiketari.



ACEIG-FECElko kidea

**“Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago”**

Araba Etorb. 4 ARRASATE Tfnoa: 79 01 32

I
R
A
T
I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80



**AZAFATA ETA
TURISMO-GIDARIEN
ESKOLA**

Tfnoa: 28 35 34

Siervas de Jesus (Pasaje de San Pedro, 1)
GASTEIZ

Memesa
79 42 22

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Anizuola	76 62 91
----------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
--	----------



20

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai: "Bailando con lobos" (10.30)
- Goardiako farmaziak: Aurora Ruiz, Maala.

21

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai: "Bésame antes de morir" (5-7.30-10)
- Masaia-ikastaroaren hasiera. Jose Luis Iñarra Pasealekua, 28 b.
- Kilometroak 91. Mikel La-boa eta Ruper Ordorika-ren kontzertua Bergarako pilotalekuan, 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

22

IGANDEA

• • •

- Goizeko 9etan Egin Egu-nerako autobusaren irtee-ra Arbolapetatik.
- Zinea: Alai: "Bésame antes de morir" (7-10)
- Goardiako farmaziak: Azkoaga, Ferrerías.

23

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai: "Bésame antes de morir" (7-9.30)
- Santamainako Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentruan matrikulatzeko epea zabaltzen da.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

24

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai: "Bésame antes de morir" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

25

ASTEAZKENA

• • •

- Aramaion, "Sagarmatha 90" diapositiba-emanaldia.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

26

OSTEGUNA

• • •

- Elorrion, Mendiko eskiari buruzko filme-emanaldia.
- Goardiako farmazia: Ame-zua, Santamaina.



Futbola

• • •

- Igandean, arratsaldeko 5etatik aurrera, Atxabalpen Mondra eta Beasainen arteko partidua.

Mendia

• • •

- Besaidek antolatuta, igandean Deba-Zumaia ibilbidea. Irteera, goizeko 7etan Garibai geltokitik.

Eskubaloia

• • •

- Larunbatean, arratsaldeko 6etatik aurrera Musakolako Kiroldegian Arrasate Kiroalak-Auzune partidua.

Ikastaroak

• Masaia

Datorren hilaren 21etik aurrera masaia-ikastaroa antolatu du. Arrasateko Yoga Elkarteak. Ikastaroaren helburua, sortalde eta mendebaldeko masaien oinarriak irakastea da. Ikastaroa larunbatetan izango da, arratsaldeko 5etatik 8etara bitartean, eta bederatzi larunbatez iraungo du. Ikastaroa hasiera-mailakoa da. Honi buruz informazio gehiago nahi duenak, 79 35 76 telefonoan eska dezake, edo bestela zuzenean Arrasateko Yoga Elkarteke bulegoetara joanez, Jose Luis Iñarra pasealekuko 28era, alegia.

Bestalde, hasierako ikastaroa egin dutenentzat, sakontze- eta hobekuntz taldea ere antolatu da.

• EGA eta Sakontze-Mailako klaseak

Bergarako UNEDeko Euskal Kultur Departamenduak, aurten ere EGA eta Sakontze tituluak atera nahi dituztenentzat ikastaroak antolatu ditu. Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek, hilaren 27a aurretik UNEDen bertan matrikulatu beharko dute. Matrikulazioa egiteko asteartetik ostiralera, goizez 10.30etatik 12.30etara, eta arratsaldez 5etatik 8etara. Informazio gehiagorako 76 13 42 telefonora dei egin daitezke.

Jaiak

• Egin eguna

Egin egunera autobusez joan nahi dutenentzat, antolatzaileek goizeko 9etan jarri dute zita, Arbolapetan bertan. Beste urte batzuetan bezala, badira arrasatear batzuk oinez joango direnak. Jaikitzeke ordua lehenago izango da horientzat, hemendik Altsasura arteko bidea



KILOMETROAK: JAIALDIA

Ruper Ordorika eta Mikel Laboa

Aurrera darraite Bergaran, *Kilometroak 91*ren inguruan antolatu diren ekintzek.

Larunbatean, gaueko 10.30etan, kontzertua eskainiko dute Ruper Ordorika eta Mikel Laboa kantariek herriko pilotalekuan.

Oñatiarra aspaldian Bergarara agertu gabe dago eta pentsatzekoa da jende asko erakarriko duela. Azken bi urteotan berari laguntzen ari den *Mugalaris* taldea izango du berekin. Antolatzaileen nahia Tapia eta Leturia eramatea ere bazen, baina dirudienez, Tapia Mexikon dago.

Mikel Laboa, Lekeitio saileko abesti esperimental berriekin dabil aspalditxoan eta seguraski bere emanaldian abesti horietako batzuk kantatuko ditu bere betiko abestiez gain.

Sarrera 1000 PTAtan jarri dute antolatzaileek eta Arrasaten *Irati* eta *Iturriotz* tabernetan eros daitezke.

oinez egitea ez da nolanhiko gauza eta.

• San Migelak Aretxabaletan

26tik 29ra bitartean, iazko esperientziari jarraipena emanez, San Migeletako jaiak burutuko dira Aretxabaletan. Ekintza gehienak, lehen aipatutako asteburuan izango badira ere, asteburu honetan bolo-txapelketa izango da, gaueko 10.30etatik aurrera.

Aurten, Aretxabaletakeko jai nagusiak bigarrenkoz burutuko dira irailean. Iazko ekintzarik nagusiena antzinako ezkontza berregitea izan zen moduan,

aurten antzinako bataioa egi-tea pentsatu da. Horretaz gain, kirol-ospakizunak, dantzaldiak (ikuskizun modura nahiz edonork parte hartzekoak) kontzertuak... eta jaietan ohizko diren beste hainbat gauza ez dira falta izango aurtengo Aretxabaletakeko San Migeletan.

Deialdiak

• Bazkaria

San Migel egunean, hau da, hilaren 29an, Eusko Alkartasuna Arrasaten sortu zeneko bostgarren urteurrena dela eta,

beste ekintza batzuen artean, eguerdiko 2.30etarako herribazkaria antolatu da, Elkarte-txean bertan. Bazkari horretan parte hartu nahi dutenek, EAKo lokalean eman dezakete izena, edo bestela 79 64 53 telefonora deituz.



• Autobusa

Asteartean Bartzelonan AC/DC eta Queen-Riche taldeek emango duten kontzerturako autobusa antolatu da Arrasaten.

Autobus hau asteartean bertan irtengo da San Andresgo geltokitik eguerdiko 12etan, biharamunean ordu berean itzultzeko. Autobusaren eta sarre-raren kostua 7.500 pta. takoa da eta joateko asmoa duenak 79 53 63 telefonora dei egin behar du.

• Orkatz skaut taldea

Ikasturtearen hasiera honetan, Orkatz skaut taldekoek dei bat egin nahi diote, aurten talde horretan sartu nahi duten guztiei. Skaut taldeko arduradunek, bereziki laugarren eta bostgarren kurtsoan dabilzan guztiei egiten diete dei, datorren larunbata, hilak 21, eguerdiko 12etan abadetxera hurbil daitezzen.



“Halere, enpresa-bolumen hau gorabehera, 1993ko panorama ekonomiko, komertzial eta konpetitibo dago aurrean, eta Arrasate Kooperatiba-Taldeko zuzendariak bere aitortzen dute “ahulezi sintoma nabariekin abiatu direla”. Taldeko kooperatiba bakoitzak ez du behar hainbateko enpresa-dimentsiorik Europako eskenategi berrian lehiakor izateko eta aldi berean, merkatal sare eta ezarpenak, eta korporazio-irudia ere ez dira egokienak.

(Europa '93 -DEIA, 1991-IX-11)

“Beharrezkoa zen fondo gehiago biltzea, industri enpresa berriak sortzeko hiritarrek askatasunik ez zuten garaian. Eragozpen berriaren aurrean, Arizmendik estrategia bat gauzatu zuen, txikiteoaren euskal ohitura zahar eta sustraituan oinarritua. Horrela, egunero, lan-orduen ondoren, “bostak” eta beren lagunak Arrasateko tabernetan elkartzen dira, bezeroekin hitz egin, enpresa berriaren ideia transmititu eta kreditu aldetik laguntzak bilatzeko”.

(Europa '93 -DEIA, 1991-IX-11)

“PSOEek zehaztu zuenez “PNVk, eperik laburrenean, Arrasateko Alkatetzari buruz hartutako konpromezua betetzea, test erabakiorra izango da bi alderdien arteko harremanak jaria korrak eta konfiantzan oinarrituak izan daitezten”.

(PSOEren Gipuzkoako Komite Probintzialak.
EGIN: 1991-IX-17)



Zertan da Uherkapeko arazoa?

Uherkapekoan hiru gai dira nagusiak: segurantza, etxebizitzak lehenetara itzultzea eta obrak duen garrantzi soziala.

Segurantzari buruz arrerapausu garrantzitsuak eman dira. Abuztu bukarratik horma gogortzen ari dira eta uste dut ez dela urrun konponbidea. Teknikoak ados daude puntu honi buruz eta ez dut uste arazo gehiegirik egongo denik.

Azatzako etxebizitzetegi dagokienez, berba egin beharko dugu alde guztiok. Hasteko, brintzak eta kalteak nola konpondu behar diren aztertu beharko da; ondoren, kalteak baloratu eta azkenik kalte hauek nork eta nola ordaindu erabaki. Guzti honetan, poliki-poliki, baina joango gara ados jartzen.

Eraiki behar diren etxe berrien arazoari ere irtenbide bat aurkitu beharko diogu. Jadanik 110 etxebizitza hartuak daudela kontuan hartzen badugu, arazoa serioa dela konturatu behar dugu. Baina hemen ere, poliki izan arren, adostasuna lortuko dugulakoan nago.

Alde bietako teknikoak ados daude arazoetako batzuk aztertzean; orain, teknikoak ez ezik gainerako guztiak ere ados jarri beharko dira. Negua baino lehenago aurkitu behar zaio irtenbide bat guzti honi edo gutxienez hormarenari.

Ez dugu nahi izan negoziaketa kaleratzerik, baina elkarrizketak ez oztopatzeko asmoarekin izan da. Azken finean denon borondatea da akordio bat lortzea eta ez dugu ezustekorik hartu nahi.

Jose Mari Loiti,
Hirigintza batzordeko lehendakaria.



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Irakasle Eskola honek zera jakin erazten du:
1991-92 ikasturterako matrikulazio-epea zabalik dagoela

Espezialitateak:

- **ZIENTZIAK**
- **HAUR-ESKOLA**
- **EUSKAL FILOLOGIA**
- **INGELES FILOLOGIA**

Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40.
Ordutegia: 9.00-13.00



Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67



ITZULPEN ZERBITZUA

- Itzulpenak
- Hizkuntz zuzenketa eta txukunketa
- Hizkuntz klase partikularrak
- Testuak ordenadorez mekanografiatu
- Maketazioa

Olarte, 24 b. ARRASATE
Tfnoa: 77 04 98
Faxa: 77 01 93

Oñati

• **ARTZAIN-TXAKUR LEHIAKETA.** Igandean izango da Oñatiko Santa Luziako zelaian XXXI. Nazioarteko artzain-txakurren trebetasun lehiaketa. Lehiaketa honetan 11 txakurrek hartuko dute parte; hiru gipuzkoar -Arrasateko Jexus Mari Plazaola tartean-, arabar bat, bizkaitar bat, nafar bat, bi behenafar, Ipar-Katanlunyako bat, Gironako bat eta Frantzia erdialdeko bat. Azken honek, lehiaketa bukatzean, saiotxo bat egingo du, Frantziako lehiaketak nolakoak izaten diren erakutsi asmoz.

Txapelketa honek bi milioi t'erditako aurrekontua du eta herriko elkarteek antolatu dute.



Bergara

• **HERRIARI BURUZKO SEI LIBURU BERRI.** Joan den astean Bergarako Udaletxean, UNEDeko irakasle talde batek Bergarari buruz egin duen monografiaren aurkezpena burutu zen. Herriaren historia, hizkuntza, artea, ekonomia, klima... eta abarren azterketa sakona ikus daiteke, UNED eta Bergarako Udalak bultzatu duten ekimen honetan. Monografia osoa bederatzi liburuk osatzen badute ere, joan den asteartean sei bakarrik aurkeztu ziren. Aurkezpenean jakitera eman zenez, falta diren hiru liburuak laster izango omen dira kalean.

Vicente Huicik, UNEDeko irakasle eta monografiaren koordinatzaileak zioenez, lan hau aurrera eramatea posible izan bada, une konkretu batean bai UNEDek eta bai Udalak ere horretarako borondatea erakutsi dutelako. Zentzu honetan, Anaje Narbaiza aipatu zuen, lanaren eragile moduan.

Duda barik, bergararrek izugarrizko altxorra dute joan den astean aurkeztutako lanean. Ea, bailarako gainontzeko udalek horretarako gaitasunik duten.



Aretxabaleta

• **KURTZEBARRI ESKOLAREN INAUGURAKETA.** Berrikuntzak direla eta, aste kultural bat ospatu da Aretxabaletan.

Kurtzebarri eskola berria, lehengoa zegoen toki berean jaso dute. Bere aurrekontua 260 milioitakoa izan da eta ordainketa, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak izenpetutako konbenioari esker egingo da. Konbenio honen arabera, Jaurlaritzak %70a ordainduko du eta Udalak gainetako.

Kurtzebarri eskolan 280 ikasle hasiko dira aurtengo ikasturtean.

Eskolaurretik hirugarren mailara bitartean D eta Murgiltze eredueta ikasiko dute eta hortik gorakoek D eta B eredueta.



Zor'tzi
GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA

Otalora Z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

BERRIRO ERE...

Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean

Seo Gasteiz -en

Cercas bajas 34 GASTEIZ

Zubi berria San Josepen

Arrasateko saihesbidea egiterakoan, San Josepetik Bedoñara zegoen bidea erdibituta gelditu zen. Orain, Udalak oinezkoentzat zubia egiteko proiektua onartu du eta ondorioz, laster hasiko dira lanean. Zubia metalezkoa izango da, kajoi itxurakoa, 37 metroko luzera izango du eta 2 metroko zabalera. Berriro ere, San Josepe eta Bedoña arteko bidea oinez egin nahi dutenek izango dute horretarako aukera.

Zergen ordainketa

Ondasun higiezinaren gaineko zerga, eta merkatal eta industrial, profesional eta artisten baimen fiskalen agiriak ordaintzeko epea ireki dute Udaletxean. Azaroaren 25a arte, epea borondatezkoa izango da. Aipatutako data baino beranduago ordainduz gero, %20 gehiago ordaindu beharko da. Ordainketa helbideratuta dutenei banketxetik pasatuko zaie, gainontzekoei etxera iritsiko zaie ordain-agiria eta gero banketxearen bitartez edo bestela Udaletxera joan eta zuzenean ordaindu ahal izango dute.

Coprecirentzat kalitate-agiria

Europako Ekonomi Elkartek Copreciri Enpresa-Agiria eman dio, enpresa honen lan-prozesuak orokorrean kalitatea ziurtatzen duelako. Ekonomi Elkarteko agiria jasotzeko, diseinuan, produkzio-prozesuan, gestioan, agirien kontrolean, garbitasunean... kalitate handia erakutsi behar da. Europako Ekonomi Elkartearen ustez, kalitatezko enpresa izateko, Coprecik gutxienezko baldintzak betetzen ditu. Copreci, Gipuzkoan agiri hori lortzen duen lehen enpresa da eta hamargarrena Estatu mailan.

Txandaka

EUSKARAREN ERABILPENA INDARTZEKO HITZARMENA ZERTAN DEN UDALEAN

Dudarik gabe, Udalak sartu beharra zuen Euskararen Erabilpena Indartzeko Hitzarmenean, udaleko egitura politikoa osatzen zuten talde politikoekin zuzenean hitzartzea. Hitzarmena sinatu zenetik, hamaika gauza aldatu da Udaletxean: hizkuntz eskakizunak onartu ziren eta udal langileak zintzo-zintzo udal euskaltegira doaz egunero euskara ikastera; idazkien sarrera-erregistroan euskarazkoen kopurua hazi egin da nabarmenki eta ondorioz Udalak euskara gehiago erabiltzen du bere bizimoduan; egitura politikoa ere aldatu egin da azkenengo hauteskundeetan ondorioz...



Jabier Ozaeta (*)

Aldaketek, tentsatu egin dute Udaleko talde politikoen arteko elkar ulertzea eta hizkuntza gai zatitzaile izan da sarritan. Ez da ahaztu behar, talde politiko batek publikoki salatu zuela udal "euskal elebakartasuna", oraindik hitzarmenak 6 hilabeteko martxa zera-manean eta udal-langileak euskaltegira joaten hasi berri zirela.

Postura-gogoretak talde politiko guztien aldetik eman dira eta norbaitek hizkuntz jokabideek zer-nolako tentsioa sortzen duen ikusi nahi badu, pleno batera joatea beharrik baino ez dauka.

Hor dira HB eta EAkoak euskaraz mintzatzen direnak; hor daude EAJkoek

gehien bat euskaraz egiten dutenak. EEk euskaraz bota eta ondoren erdarara bozeramaleak berak itzultzen ditu. PSOE, berriz, erderaz baino ez da mintzatzen.


PSOEn kexa euskararen erabilpenagatik sufritzen duen bazterkeria bada eta HB, EA eta EAJkoek euskaraz interbentzioren bat eginda gero

euskarazko interbentzioren itzulpenak eskatzen baditu, zer gerta liteke alkatetarako inoiz gorputzik hartzen badu?

Alkatetza oposizioa joango litzateke, oposizioa alkatetzara eta "beste oposizioak" (HB eta EA) ez ote luke salatuko sozialisten erdal elebakartasuna? Ez ote litzuzke itzuleraziko euskarara alkatetzak erderaz botatuko denak? Ez ote litzateke gaur gertatzen denaren alderantzizko gertatuko?

Aldaketa edo ez, bada zerbait arduratzen nauena, euskararen erabilpena. Adibiderako gobernu-batzordearen jokabide linguistikoa hartu dut Udalaren hizkuntz egoeraren adierazgarri. Gaurko "euskal elebakartasunean" gobernu-batzordeko gaiak %33'59 euskaraz tratatzen dira eta %66'41, berriz, erderaz. Alkatetzara igo nahi duen taldeak igota, hauteskundeetan agindu zuen "benetazko elebitasuna" martxan jartzen badu Udaletxean, norantz egingo du oraindik oreka lortu ez duen euskal produkzioaren kopuru horrek? Gora ala behera?

(*) Hitzarmenaren




ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25




zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta, 5 behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Ospitale Zaharra



Amaia antzokia

Obratarako proposamen ugari

Amaia antzokia berrizteko enpresa bat bakarrik aurkeztu

Ospitale Zaharra eta Amaia Antzokia eraberritu, San Kristobalگو hilerria eraiki eta Santa Barbara Parkea urbanizatzeko proposamenak jakin ziren joan den astean.

Ospitale Zaharraren berritze-lanak burutzeko, bi enpresak aurkeztu zuten beren burua: *Lekber* eta *Construcciones Aranburu* enpresak. *Lekber* enpresaren proposamenean, Ospitale Zaharreko obrak burutzeko 130 milioiko aurrekontua ageri da eta hamar hilabete epea. *Construcciones Aranburuk*, berriz, eraberritze-lanak 241 milioitan egingo lituzke eta urtebete beharko luke.

Amaia Antzokia eraberritzeko, *Construcciones Brues* enpresak bakarrik aurkeztu zuen proiektua, 138 milioiko aurrekontuarekin, hamar hilabete burutuko luketelarik lana.

Santa Barbara Parkea urbanizatzeko, honako enpresek ondorengo aurrekontuak aurkeztu zituzten: *Construc-*

ciones y Asfaltos Mularrik, 84 milioi; *Construcciones Echaidek*, 86 milioi, *Construcciones Pedreirak*, 87 milioi, *Construcciones Bruesek*, 87 milioi; eta *Construcciones Arrasatek*, 84 milioi.

Azkenik, San Kristobalگو hilerria eraikitze dozena erdi enpresa azaldu ziren prest: *Construcciones Moyuak*, 284 milioitan eta urtebetean egingo luke. *Dragados y Construccionesek*, 268 milioitan eta hamar hilabeteetan. *Tecsak*, 273 milioiko aurrekontuaz eta zortzi hilabete epearekin. *Construcciones Alcalak* 278 milioiko aurrekontua aurkeztu zuen, eta hilerri berria egiteko urtebeteko epea. *Construcciones Aranbururen* proposamenak, 458 milioi eta urtebeteko epea eskatzen du. *Construcciones Ferrovialek*, 281 milioitan eta hamaika hilabeteetan eraikiko luke.

Proposamenak proposamen, orain Udalak guztiak aztertu eta hoberenak aukeratu beharko ditu.

Usteak uste

Joan den asteburuan, mondragoetar askok urtero Arantzazura egiten duten erromesaldiaren beste edizio bat burutu zen. Joan zirenak joan zirela, alkatea eta HBko zinegotziak joan ez zirelako iritsi dira protestak.

Eliza-Estatua, edo kasu honetan Alkatea-Arantzazuko Erromesaldia, eztabaida oso zaharra da; sinesmenak eta legeak bezain zaharra esango nuke. Ezin da ukatu, Estatu Espainiarrean aspaldidanik botere zibila eta eliza elkarren ondoan joan direla, batez ere Francoren garaian. Elkarrekin joate horretatik, fede-ekintza ugari ohitura bihurtu dira: elizak antolatu eta nolabait aginte zibilak, presentzia hutsarekin, babesten zituenak.

Errealitate horren aurrean, dagoeneko botere bien arteko harremanak aldatuta badaude ere, Arrasateko Alkatearen erabakia ez da batere erraza. Alde batetik, arimak ez dio Arantzazurako Erromesaldira joateko eskakizunik egiten; bestetik, Arantzazurako Erromesaldia Arrasateren izenean izateak, badirudi Udal-burua Arantzazura joatea eskatzen duela.

Zerk du garrantzi gehien, norberaren ideiak ala besteenak? Arima-kontuetan, norberak ezik, badu beste inork sartzeko eskubiderik?

Nik ezetz esango nuke.

B. KORTABARRIA

LEZARAN

MARKO-JARTZEAK • LAMINAK • MARGOAK
Biteri Etorbidea, 11 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE

Obra saihebidetan

Udalak proposatuta, azkenik saihebidetik Ospitalera sarrera berri bat egiteko proiektua onartu du Foru Aldundiak. Aipatutako sarrera, Aretxabaletatik datozenentzat aproposa izango da. Onartutako proiektuaren arabera, 300 metrotako sarrera egingo da, 24 milioiko aurrekontuarekin.

Odol-emaileak

Odola eman nahi duen guztiak, horretarako aukera izango du ambulategian datozen 25 eta 30ean, 4.30etatik 20.30etara bitartean.

Mankomunitatearen osaketa

Datorren hilaren 25ean, bailarako herri guztietako ordezkariak bilduko dituen botazioaren ondoren, Zuzendaritza-Batzordea osatzeaz gain, Mankomunitateko lehendakaria hautatuko da. Orain arte, Xabier Zubizarretak bete du kargu hori, eta 25aren ondoren seguruen Jose Mari Loiti izango da.

ONGI ETORRIA JAIÖBERRIEI

Agirre Mendieta, *Nerea*. Irailaren 13an.
Cruz Arejolaleiba, *Ander*. 15ean.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Francisco Javier Diaz & *Alfonsa Sanchez*.
Irailaren 14ean. Elizaz.
Juan Carlos Arrietaleaniz & *Beatriz Coranti*. 14ean. Elizaz.



San Andreseko Fagor Electronica lantegia

Fagor Thailandiara

Gama txikiko erdi-eroaleak egiteko lantegia eraikiko

Fagor Electronicak Thailandian enpresa berri bat irekitzeko lanak dexente aurreratuta dabilta. Oraindik, lantegia bera eraikitzen hasi ez badira ere, horretarako behar den lurra erosita dago eta laster hasiko dira eraikitze-lanetan.

Thailandiako lantegian, Fagor Electronicak gama txikiko erdi-eroaleak egiteko asmoa dauka. Fagorreko berriemaileak zioenez, lantegi berri hau Thailandian eraikitzeko funtsezko arazoia produzitzeko kostuan legoke, eskulana merkeagoa izatean produktua

merkeago ateratzen delako. Era horretan jokatuta, gama txikiko erdi-eroaleetan Fagor Electronica lehiakor izan daiteke. Thailandian lantegi berria irekitzeak, Arrasaten gama txikiko erdi-eroalerik ez dela egingo esan nahi du. Dena dela, Fagorren diotenez, lanposturik ez da galduko, langileak beste toki batzuetan birziklatuko dituztelako.

Iaz Coprecic Mejicon lantegian zabaldu bazuen ere, badirudi kasu biak egoera puntualak bultzatutakoak direla, eta ez aurrerantzerako kooperatibalderearen joera orokorra.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak


ARETXABALETA Tfnoa: 79 91 84

URONDO
elektrizitatea



- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa Etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

“JOSTEKO” OIHAL DENDA

Esperientzia duen jostuna
behar da

Errekabarrena, 20 Tfnoa: 79 80 90
ARETXABALETA

Hiriguneko auzo-alkateak aukeratuta

Laster aukeratuko dira baserri-auzoetakoak


Erdigunea, Erguin, San Andres, Musakola eta Santamaina auzoetako alkateen hautaketa burutu zen atzo arratsaldez, Arrasateko Udaletxean. Pleno-aretoan, bost udal-barrutietako berrogeitamarren bat lagun bildu ziren, hamarren bat lagun udal-barruti bakoitzeko. Hamar lagun horiek, aurreko udal-hauteskundeetan ateratako emaitzen arabera aukeratzen dira, eta gero horien artetik, botazio bidez, auzoko alkatea hautatzen da.

Hautaketa nola egin jakiteko, auzoetako ordezkari guztiak pleno-aretoan bildu baziren ere, gero hautaketa udal-barrutika egin zen, udaletxeko toki desberdinetan. Barruti bakoitzean, alderdi bakoitzeko hautagai bat aurkeztu zen, eta printzipioz alderdi bakoitzak bere hautagaiari eman behar zion botua. Erguin eta Santamainako Udal-Barrutietan arazo txiki batzuk izan ziren, lehenengoan PSOEkoak ez zirelako ados emaitzekin,

eta bigarreanean Nekane Iglesias eta HBko ordezkari baten artean istiluak sortu zirelako.


Botoen arabera, Erguin eta Musakolako alkateak HBrentzat izan ziren, San Andres eta Santamainakoak PSOEntzat, eta Erdigunekoak EAJrentzat.

Baserri-auzoetako alkateetzen aukeraketa oraindik egiteko dago, eta laster egingo dela esan daiteke; hirigunearan erabili den sistema bera erabiliz, gainera.



ERGUIN
Jabier Jaso
(HB)

41 urtekoa, Ofizial industrial; Fagor Climan egiten du lan.




MUSAKOLA
Juan Ignacio Biain
(HB)

43 urtekoa, informatikoa.



SAN ANDRES
Jesus Herrera
(PSOE)

29 urtekoa, igeltsaria.



SANTAMAINA
Angel Espinosa
(PSOE)

39 urtekoa, Metasako langilea.



ERDIGUNEA
Miguel Angel Mondragon
(EAJ)

46 urtekoa, Maisu industrial; Ulgorreko langilea.



**Parques
y Jardines**

**PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA**

**LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR**

**LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ**




Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)


Pastorala Arrasaten



Monterroneko parkeko eskenategiraino iristeko, muskildiarrek kontu handiz jaitsi behar izan zuten parkeko aldapa lurrera ez joateko. Normalean, aldapa hori jaisteko ez lukete inolako arazorik izango, baina arropa eta oinetako zahar polit haiekin batekin baino gehiagok gorriak ikusi zituen.



Pastorala hasi zenean, eguzkiak gogoz jotzen zuen Monterroiko zati handi batean. Ikuskizunaren iraupena hiru ordukoa izango zela iragarrita zegoenez, jendeak aukeran gerizpea hartu zuen. Arratsaldea aurrera joan ahala, eguzkiak ezkutatzera egin zuen, eta orduan bete ziren argazkian libre ikusten diren aulkiak.



Iparraldekoen kanta eta bertsoak ikus-entzuleengana behar bezala iritsi zitezen, soinu-teknikariek oso lan ona egin zuten. Hori bai, atsedenaldirako denbora ere hartu zuten.



Hiru ordu baino gehiago iraun zuen "Harizpe" pastoralak. Txalo ugari jasota, baina hala ere nekatuta ageri ziren muskildiarrek. Indarrak berreskuratzeko, zer hoberik Kataiden egin zuten afaria baino. Argazkikoak, auskalo zeri egin nahi zion topa. Guk, behintzat, Zuberoako Muskildiri egingo diogu... Topa!

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. ARRASATE Tfnoa: 79 04 46



Joseba

A

zken urteetan Europako ekialdean izan den aldaketak nahastua utzi du bertako biztanlegoa. Politikan, ekonomian, gizartean... arlo guztietan eman dira aldaketak eta batzuek, gehienek agian, ez dute batere ondo ulertzen zertan den aldaketa hau.

Hori da gure argazkiko protagonista txekoslovakia-rreri gertatzen zaiena. Batakurteak eta urteak daramatza hor geld; esperientzia ez zaio falta, beraz. Hala ere, bere eskuarekin buruari eutsiz, ezetz esaten dio gure argazkilariari, berak ez duela ulertzen, berari ez galdetzeko.

Emakumearena tristeagoa da. Egun batetik bestera aberastuko zelakoan, tabernatxo bat jartzea erabaki zuen, terraza eta guzti.

Baina ezer ez. Hor dugu nagiak ateratzen norbaiti Coca-Cola bat ateratzeko zain.


Txeko hauek ere, poltsa, poltsa badute baina, dirurik ez, dirurik ez..



LASA-AGUILERA
aholkularitza

Andra Mari auzunea, 3 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 26


- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-aseguruak
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.a
- Errenta-aitorpenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak



Los Albertos taldeak Bartzelonako Villanova i la Geltrun-en uztailen egin zen rock lehiaketan lehen saria lortu zuen. Taldea **Txema Arzamendi** eta **Iñaki Bengoa** arrasatearrek eta **Jose Telletxea** mungiarrek osatzen dute. Sari bezala, LParen alde bat grabatuko diete urriaren bukaeran.



Langile finak aritu ziren **Uherkapen** astelehen eguzkitsu batez. Egun osoa eman zuten neurketak egin eta egin. Baina nonbait burua berotzeko gogo gutxi zuten eta ondo prestatuak agertu ziren guardasol eta guzti. Horrela edozeinek.



Pasa den astean **Ladis Galarza** izan genuen Import Arrasate bisitatzen. Hor ikusten dugu Baraibarreko txapelduna Joxe Uribesalgoren azalpenak arretaz entzuten. Ladisen alboan bere anaia Enrike, 15 urtekoa. Ladisek dioenez, berak baino etorkizun hobea du Enrikek. Ez da gutxi!




LORAMENDI KIROLAK

**Txandalak
Zapatilak
Jertseak**

%50

MERKEAGO!



◀ Urriko lehenengo ostirala gertu dugu eta urtero bezala Maritxu Kajoiko kartela **Iñigo Arregi** eta **Juan Luis Golkoleak** egin dute. Aurtengo udan Sobietar Batasunean aldaketa sakonak izan dira eta bai bertako prentsan ere. Begira bestela nolako garrantzia ematen dieten kanpoko jaiei. Ea ba sobietar kuadrilaren bat bertarutzen zaigun.

Izen
PROPIOAK

● **Idola Urrutia**, 30 urteko bergararra da San Viator ikastetxeko batxilergotako zuzendari tekniko berria, Gerardo Markuletaren orde. Idoiak Zientzi Zehatzak ikasi zituen eta sei urte daramatza irakasle-lanetan.

● **Jexus Marl Plazaola**, 34 urteko Udalarra, eta bere *Turko* txakurra bigarren gelditu dira Mandubin izandako Gipuzkoako artzain-txakurren txapelketan. Postu honek Oñatiko nazioarteko txapelketan parte hartzeko eskubidea ematen dio.

● **Angel Barandiaran**, 43 urteko arrasaterra, da Fabrelec-eko zuzendari gerente berria. Angelek injinerutza Teknikoa ikasi zuen Arrasateko Eskola Politeknikoan. Bere lehenengo lanak Alecoop eta I+Dn egin ondoren, Fagor Industria-leko produkzio-zuzendaria eta Fagor Muebles-eko gerentea izan da.



Uribe Auzoan zaborrekin gertatzen ari dena kezagarria da.

Kontenedore edo edukinontziak kasu berezietarako zeuden jarriak, baina jendeak gainezka uzten zituen. Ikusten denez, kontenedoreak kendu eta berdin jarraitzen dugu. San Andresekoak ez dituzte kendu, baina antzerako arazoa dago.

Noiz arte? ▶



**UNED-BERGARA
EUSKAL KULTUR
DEPARTAMENTUA**

**EGA eta SAKONTZE MAILA I-II
IKASTAROAK**

- Matrikula-epaia: irailaren 5etik 27ra
- Ordutegia: asteartetik ostiralera: goizez 10.30-12.30 arratsaldez 5-8

Astelehen eta larunbatetan itxita
Tfnoa: 76 13 42

Oharra: EGAKo ikastaroak HABEren dirulaguntzaz

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33 ARRASATE

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate 79 98 84

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

Xabier Zubizarreta ez du ia aurkezpen beharrik. Nork ez du ezagutzen azken lau urteotan Arrasateko alkate izan dena, eta azken hauteskundeetako emaitzen ondorioz, ondorengo lau urteetan Arrasateko alkate izateko hautatua izan dena? Halakorik balego, jakin dezala Xabier Zubizarreta 46 urte dituela, magisteritza ikasi zuela eta informatikan lan egin. Udaletxeko konpromezuek, lan horiek alde batera lagatzera behartu zuten.

— Xabier, zortzi urte arrasatearren aurrean lan egiten, eta beste lau egiteko prest. Zergatik saltsa horretan?

— Inguruan gertatzen zenak beti kezkatu izan nau, besterik ez. Arazo asko daude agerian, eta horien aurrean ezin geldirik egon. Ezingo ditut guztiak konpondu, baina ahal ditudanak bai.

— Zer sentitu zenuen alkate izendatu eta gero?


— Duela lau urte, lehen aldian, poza baino arduraren handiagoa sentitu nuen, ez zen txantxetakoia eta. Aldi berean, alkate izateak herriaren alde eta herriaren bertan gauza asko egiteko aukera ematen zidala sentitu nuen. Bigarren izendapen hau desberdina izan da, alkate izateak dakartzan ondorioak ezagutzen ditudalako, eta gainera ez da ezustekoa izan. Zalantza handiak nituen hautatua aterako nintzen edo ez, baina espero nuen gertatu zena gertatzea.

— Udala gobernatzeko akordioa lortzea, zaila izan zen?

— Negoziaketa normala izan zen. Gauza batzuei eutsi genien, beste batzuetan, berriz, amore eman, besteek ere horrela jokatu zuten.

Xabier Zubizarreta

Bigarrenengo alkate



Lortutako akordioa, herriarentzat akordio ona dela uste dut. Arduraren eta lanaren banaketa denon artean egin dugu, erabakiak ere guztion adostasunarekin hartu behar ditugu, eta honek, printzipioz, herriarentzat ona izan behar du. Herria gobernatzeko lortu den akordioa baliogarria izan daitekela uste dut.

— Azken berrien arabera, badirudi EAJ Arrasaten lortutako akordioa apurtzekotan dagoela, ez?

— Arrasate, trukerako txanpona balitz bezala ari dira erabiltzen. Askotan

goi-mailetan egiten direnek ez diete erantzuten herriko gauzei. Donostian EAJ eta PSOEk sinatu dutena arrasatear askoren aurka doa, herriaren borondatearekiko errespetu falta handia adierazten du.

Dena dela, uste dut EAJk eta PSOEk sinatu dutena oraingoz ez dela gauzatuko. Donostiako akordio hori, bereziki PSOeri interesatzen zaio, EAJri ez dio mesederik egiten. Akordio hori gauzatzeari, gehiengo abertzalea duen herriari aurre egitea izango litzateke.

— Donostia alde batera. Datozen lau urtetarako plan berezirik?

— Oporrak tartean, ia ez dugu ezer egin eta orain martxan jartzen ari gara. Batzorde guztietako lehendakariekin eta fundaziotakoekin, lau urtetarako plangintza egiteko bilduko gara lehenbailehen. Helburu nagusiak jarri eta adostasunera iristea izango da gure lana.

Orohar, azpiegitura eta zerbitzuen aldetik aurrerapen handia egin dugula esango nuke; batez ere, udal-zerbitzuak garatu eta antolatzen. Era berean, Arrasaten euskal kultura garatu eta indartzen lan ona egin da.

— Zure ustez, zeintzuk dira Arrasatek dituen arazo larriak?

— Pertsona bakoitzak dauzka bereak, krisian gaude, langabezia oso zabala da, gazteen etorkizuna beltza... Udalak ezin ditu konpondu, baina bai kontuan hartu.

Ingurugiroaren arazoa kezkarria da, baita aparkalekuena ere. Biei kasu handia egin behar zaie, eta aparkalekuei dagokienez lur-azpikoaren aldeko apustua egin, oinezkoen lekua eman behar zaie eta.

Bestalde, hor daude betiko proiektuak: Mojategiko kirolgunea, Amaia eta Ospital zaharraren eraberritzeak... horiei ere bultzada eman beharko zaie.

— Mankomunitatea?

— Udalaren lanaren osagarri da, eta oso interesgarria bailara osoaren ikuspegia izateko.

— Eta Uherkape?

— Korapiloaren zatirik handiena askatzen ari gara. Ez dadila inor kaltetua gertatu, horixe lortu behar dugu. Teknikoki, segurtasun osoz egin daitekeen lana dela eta horretan gabilta.

— **“Lortutako udal-akordioa baliogarria izan daiteke herria gobernatzeko”**

Sergio, kaleetako maizterra

Eguneko edozein ordutan eta edozein tokitan aurki dezakezu, Seberoko bankuetan, Ferreriasen paseoan, herriko edozein tabernatan txikitoa hartzen, Monterronen siesta egiten edo Uribe auzoan gaua pasatzen. Ez dauka inolako obligaziorik, ezta ezerekin loturarik ere. Sergio da, Arrasaten kalean bizi diren hiru pertsonetariko bat.

Sergio, gaztaroa Zarautzen pasatutakoa bada ere, jaiotzez donostiarra da. Berak dioenaren arabera, familiarekin ondo konpondu ez, eta Soraluze alde egin omen zuen hamalau urte zituela. Soraluzen, lana ere eman zioten, baina ordurako ardoari gustoa hartuta zegoen eta ez zen lanerako gauza izaten. Urte batzuen buruan, Soraluzetik Santa Agedara ekarri zuten.


Santa Agedan zortzi urtetetz egon zela dio Sergiok. Itxura baten, Sergiori denboraren nozioa nahastu egin zaio, Santa Agedan hamasei urte pasatu bait zituen eta ez zortzi. Santa Agedan pasatutako hamasei urteetan, Sergiok hogeitamaika alditan ihes egin zuen.

Arrasaten finkatu

Santa Agedako egonaldi luzearen ondoren, badirudi Sergiori Arrasate

gustatu zitzaioela, bertan bizitzen gelditzea erabaki zuen eta. 1977garren urtean izan zen hori. Ordutik hona, bere

irudia arrunt bilakatu da arrasatearrentzat, hiriguneko paisaiaren beste zati bat baltiz bezala, berari itsatsia.



Sergiok ardura handiarekin begiratzen dio datorren neguari

Esan bezala, kalean bizitzen jarri zen; lotarako edozein bazterrek balio zion, jateko eta edateko ematen ziotenarekin konformatzen zen, garbiketarako beharrik ez.

Udala Sergioren egoeraz jabetu zen, baita San Juanen etxe berri-berria bereziki berarentzat jarri ere. Sergio bizimodu normalera birziklatzeko ahalegina alferra izan zen. Hilabete batzuk beranduago, auzotarrekin arazo ugari izan eta gero, berriro kaleko bizitzara itzuli zen. Udaletxeko arduradunak etxea ikustera sartu zirenean, zikina baino zikinagoa aurkitu zuten, zaborrez bete.

Etxe batean bizitzen jartzea ahalegin ustela suertatu zela ikusirik, Sergio Trinxerpeko "Hogar del Transeunte" delakora eraman zuten. Han, lau egun besterik ez zituen pasatu, segituan Arrasatera itzuli zen. Udaletxeko arduradunek ez zuten etsi eta pentsio batean sartu zuten. Berriz ere, betiko his-



Olatz Etxabek, Gizarte-Laguntzaileak makina bat lan egin behar izan du Sergioren kasuaz.

toria, arazo ugari eta zinkeria nagusi, haserretuta aldegin zuen. Herriko taberna batzuekin akordioa ere lortu zen, eguneroko jatorduak emateko. Hasieran tabernariak ez zuten eragozpenik jarri, baina egun batzuean Sergio bazkaltzen izan ondoren, eritiziz aldatu zuten.

Gaueko hotzaren ondorioz

Inguruko guztiekin haserretuta, kaleko bizitzaren bakardadera itzuli zen. Iazko negua, Sergiorentzat gogorra izan zen. Egun batean, Udaletxeko Gizarte-Laguntzailearen aurrean agertu zen bapatean, gaizki zegoela esanez. Eskualde Ospitalera eraman, eta bertan ingresatu zuten. Pulmonia zuen Sergiok, kaleko hotzak eraginda, noski. Eskualde-Ospitalean hogeigun pasa-

tu zituen Sergiok, lehenengo hamarrak larri, gainera.

Sergio bizarra kenduta, sabela beteta, eta arropa eta gorputz garbiarekin aterazena Eskualde-Ospitaletik. Gaur egun, bere egoera oso beste-

lako da. *"Badaukat txabola bat Garagarizan, baina teilatua apurtuta dauka, beraz edozein bazterretan egiten dut lo. Jateko edo txikito batzuk edateko, ba, jendeak eta Caritasek ematen didatena-*

Arrasate aberatsa?

Sergioren kasua estremo da. Baina ez da bakarrik Arrasaten. Badira beste bi pertsona, bata 23 urtekoa eta bestea 35koa, etxe barik daudenak. Baina beti aterperen bat aurkitzen dutenak.

Horiez gain, Arrasaten 90 kasu daude pobrezia-aren aurkako laguntzak jasotzen dituztenak. Laguntza horiek bi motatakoak dira: premia-azko laguntzak eta gizarte soldatak; lehenak kostuak ordaintzeko izaten dira, eta bigarrenak gutxienezko soldatak ordaintzeko. Aipatutako 90 kasuetatik, 60 premia-azko laguntzak dira eta 30 gizarte-soldatak.

Iazko urtearekin konparatuz gero, aurtun laguntza gutxiago eman dira. Olatz Etxabe, Gizarte-Laguntzailearen hitzetan, *"Arrasatek Euskadiko pobrezia maila txikiena dauka. Seguruen, kooperatiben eraginez"*.

rekin moldatzen naiz. Garbitzeko, jende larregi ez dagoanean, Monterronera joaten naiz. Dutxa bat ere, noiz behinka gustora hartuko nuke. Eguraldi honekin ondo nabil, baina ez dakit neguan zer gertatuko zaidan. Iazkoa errepikatzerik ez dut nahi, oso gaizki pasatu nuen. Ora-in zain nago, Udalak laster zerbait emango didala agindu dit eta".

Berak nahiko balu

Udalak zer agindu dion jakin egin behar bada... eta Udalak, Sergiori ez diola ezer agindu baieztatzen du Gizarte-Laguntzaileak. *"Iaz, Ospitaletik atera zenetik ez da guregana ezertarako hurbildu. Beraz, ezinezkoa da gukezer agintzea. Nahi balu, segituan erresidentzian sartuko genuke, inongo arazo barik. Han gutxienez, janaria, ohea eta garbi ibiltzeko aukera izango luke, eta nahi izanez gero lagunak. Sergioren arazoa, besteekin eta arau batzuen barruan bizitzerik ez nahi izatea da. Erresidentzian, jaiki, bazkaldu, afaldu eta oheratzeko orduak besterik ez lituzke zaindu beharko... baina kalean bere kontura ibiltzea nahiago du. Bere esku dago egoera konpontzea. Etorriko balitz lagunduko genioke"*.

Neguko gau beltzak, laster gerturatuko zaizkio Sergiori; ea ordurako aterperik aurkitzen duen!

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarke kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89

Esku-baloi taldeak martxan

Lehen mailako taldeak kategoria galdu du

Aste buru honetan hasiko da Arrasateko esku-baloi taldeentzat denboraldia. Hasteko, berri txar bat izan dute klubeko buruek; izan ere Espainiako Eskubaloi Federazioak, Euskal Liga hamalau taldetara murriztea erabaki du. Agindu honen ondorioz, Arrasate Kirolak taldeak probintzi mailan aritu beharko du.

Izendapen berri batzuk ere izan dira klubean. Alde batetik, Joxe Aranburuzabala lehendakaritzara itzuli da, urtebeteko atsedendialdiaren ondoren. Oso zaila da batzordekide berriak aurkitzea.

Bestetik, Jose Manuel Ruiz de Cenzano da senior mailako taldearen entrena-




Argazkian, iazko partidu bat

tzaile berria. Oñatiar hau lehen ere ibilia da Arrasateko taldea entrenatzen.

Aurretik lagunarteko

partidu batzuk jokatuko dituen arren, denboraldi ofiziala urriaren 6an hasiko da seniorrentzat.



Central Jet-Euskal Air aurrendenboraldian

Central Jet-Euskal Air saski-baloi taldea denboraldia gertatzen ari da, lagunarteko partidu batzuk jokatuz. Pasa den asteburuan Eskoriatzaren aurka neurtu zituen indarrak probintzi mailako taldeak, eta Gasteizen aurka lehenengo maila autonomikokoak. Asteburu honetan Legazpiko Andraitz taldea eta Donostiako Juven izango dituzte aurrez aurre, Oñatin lehenengoez eta Bergaran besteek.

Bestalde, bazkideak egiteko ahaleginetan dabil taldearen zuzendaritza, klubak duen sei milioitako aurrekontuari aurre egiteko, bazkideen laguntza ezinbestekoa bait da.


Igandeko partidua

Joan den igandean puntu bat eskuratzea lortu eta gero, igande honetan Mondrak Beasaingo taldearen bisita jasoko du. Mondrako presidentek, pena zuen bi puntuak ez irabazi izana, golak lortzeko aukera ederrak galdu zituztela eta.

Arrasatearrek indarrez eta jokoz, orainartean maila ona erakutsi dute. Igandean, Atxabalpera hurbiltzen direnek, maila horren frog berria ikusteko aukera izango dute. Izan ere, denboraldi-hasiera honetan beasaindarrak gogor dabilta eta, arrasatearren moduan, bost punturekin sailkapeneko bigarren postuan daude. Gainera, beasaindarrak, aurten diruaren aldeko apostua egin dute eta goi-mailako taldea osatu. Sukia, Sukunza, Ibañez, eta Eizmendi lehen mailan jokatutako futbolariak dira, orain Beasain taldean dabilzanak.

Mondrari dagokionez, esan behar Ondarroako partiduaren ondoren, Iban, Moreno eta Maturana erdi-lesionatuta daudela. Entrenatzaileak zioenez, horien egoera argitu arte jokalarien zerrenda ematea ezinezkoa da.

Hala ere, Mondraren entrenatzailea ez dago taktika aldatzekotan eta igandean ohizko 4-4-2ko sistema erabiliko du.



Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

**ETOR
GOIKOETXEA**


**Aukeran,
pilota nahiago**

Gutxi izango dira gaur egun futbola eta pilotaren artean aukeratu beharrean egon eta bigarrena hobesten duten gazteak.

Etor Goikoetxeak bazuen futbolearen etorkizunik baina gehienek ez bezala, motzez jantzi beharrean, zuriz eta luzez jaztea erabaki du. "UDAn eta ALMENE ibili naiz futbolearen. Lehenengo urtetan nahiko erraza izaten da bi kirolean batera jardutea, baina maila bat hartzen denean aukeratu egin behar da. Aurtengo udan bata ala bestea aukeratu behar nuela esan zidan aitak. Nik izugarritzko zalantzak izan ditut, baina azkenean pilotan gelditu naiz".

Hamasei urte ditu Etorrek eta pilotazaletasuna ez datorkio etxetik. «Ez, ni lagunekin hasi nintzen pilotan Iturripeko pilota-eskolan. Hamar bat urte izango nituen eta Mauri zen gure maisua». Atzelaria da eta jotzea gustoko duen arren, pilota mozteak ere oso atsegin du. Oraintsu arte Tolosa miresten zuen pilotari guztien gaitetik, baina aspalditxoan ez du batere ondo ikusten. "Beraren jarraitzaile suitsua izan naiz, baina orain gaizki dabil. Gaur egun, atzelari on asko

PODIUMA



dagoen arren ez dut aparteko preferentziarik".

Orain arte lortutako emaitzarik onenak Antzuola eta Aretxabaletako txapelketetako bigarren postuak izan ditu. Esperientzia txar batzuk ere izan zituen iaz. "Azpeiti eta Soroluzeko txapelketak ezin izan nituen bukatu antolatzaileekin sortutako iskanbila batzuk medio. Nonbait, eraman nuen aurrelaria gehiegitxo iruditu zitzairen bertakoei eta herriko pilotarientzaxapela arriskuan ikusi zutenean, arrazoi sinestezin batzuk emanaz, gehiago ez joateko esan zidaten".

Hasi berria den Gipuzkoako klubaren arteko txapelketan dabil orain kadete mailan. "Nekeza izango den arren, postu on batean geratzea dugu helburu. Gure taldean Soroluzekoak ditugu kontrariarik gogorrenak, baina saiatuko gara goiari eusten".

◆ **Klubaren arteko pilota-txapelketa**
Pasa den asteburuan hasi da Gipuzkoako klubaren arteko txapelketa.

Txapelketa hau bi taldetan jokatu da aurtun; nagusia eta gazteena. Lehenengo ihardunaldian Aloña-Mendiko oñatiarren aurka aritu ziren arrasateko pilotariak. Nagusietan bi partidua galdu zituzten eta bakarra irabazi (12-22 jubeniletan, 4-22 juniorretan eta 22-18 seniorretan). Gazteek aldiz hiru garaietan ekarri zituzten Oñatitiek (18-17 alebinetan, 18-9 infantiletan eta 18-17 kadeteetan).

Bigarren ihardunaldian Eskoriatzako pilotarien aurka neurtuko dituzte indarrak gazteek eta aretxabaletarren aurka nagusiek.

◆ **Eskubaloia partidua larunbatean**

Larunbatean, goizeko 11.30etan, kadete mailako lagunarteko esku-baloia partidua jokatu dute Arrasate Kiroklak eta Bergara taldeek. Arratsaldean, 4.30etan, jubenilak arituko dira Bergararen aurka hauek ere, baina partidua ofizialean. Ondoren, 6etan, Senior mailako partidua izango da Arrasate Kiroklak eta Gure Auzuneren artean, lagunartekoa hau ere.

◆ **Igandetik piszina barik**

Musakolako kiroldegiko piszina estalian burutzen ari diren konponketa lanak direla eta, igandean, kanpokoek udako ordutegiarekin jarraituko dute irekita. Igandetik aurrera eta barrukoak zabaldu arte, Urriaren hasieran seguraski, igerileku gabe egongo da Arrasate.

Dena den, negoziazioak bide onetik doazenez, badirudi kiroldegiko bazkideek Aretxabaletako piszina erabiltzeko aukera izango dutela Arrasateko arazoa konpondu arte.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribari etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99

Pastuala jalgi zaigu plazara!

Joan den larunbatean Monterronen ikusi genuen "Harizpe" pastoralara asko gustatu zitzairen bertan bildu ziren entzuleei, txaloen maiztasun eta berotasunaren arabera. Areago, lehen aldia izan dela esango nuke pastoralaren entzuleei oro har gustatzera iristen dena. Pastoralaren plazaratu egin zitzaigun larunbatean Monterronen.

Hegoaldeko euskaldungoak Zuberoako altxortegia deskubritu zuenean, duela hogeiren bat urte, "Harizpe" honen oso bestelakoa izaten zen pastoralara: luzea, sei ordu edo gehiago iraun bait ze-

zakeen, astuna, bertso-sorta amaiezinez osatua, tradizionala, non emakumeek ezin zuten parte hartu eta gizakumeek egiten zuten emakumeena... Orduko pastoralaren fosil baten antzekoa zen, iragan urrunetik gure artera iritsitako aztarna bitxi eta aldaezina. Hegoalderetik urteoro leialtasun militantez hurbiltzen zirenek asko estimatzen zuten ikuskizunaren jatorrisan exotikoa eta guzti hura prestatzeko zuberotarrak egiten zuten lan mardula. Ikuskizuna bera luzea eta astuna izan arren, egun polita izaten zen pastoralarena...

Duela hiruzpalau urte pastoralaren hegoaldera pasatu


zen lehen aldiz. Eta hemen ditugun erreferentziak beste batzuk dira. Gustatzen zaizkigun ikuskizunak arinak izaten dira, laburrak, erritmo bizikoak, gertakizun bezalakoak. Zuberoako fosilaren arriskutan zegoen ingurugiro horretan...

Baina oraingoan ere pastoralak jakin du egoera berrira egokitzen. Eta bilakera horretan, "Harizpe" da lehen emaitza biribila, hunkigarria, pastoralaren zale ez direnei gustatzeko modukoa. Harrigarria zentzu horretan Pier Paul Berzaitzek izan duen ausardia. Iraupena hiru ordu eta laurdenera laburtu du ("Bailando con lobos"

pelikulak irauten duena), bertsoak ere juxtukoak utzi ditu gaia kontatzeko, eta haien lekuan kantu ederugari sartu. Ez du inongo lotsarik izan ohizko txarangaz aparte sintetizadorea (seguraski japoniarra) erabiltzeko. Berziki zaindu du koreografia, eta hemen aipatu behar dira pelotariaren pasarteak, edo afusilamentuena edo Harizpearen eztei-dantzarena. Azkenik oso trebea izan da gidotari gaurko hainbat arazoren erreferentziak sartzean, une oso hunkigarriak lortuz.

Pastoralaren irten zaigu mundu zabaleko plazara. Zuberoako fosilak aurkitu du iraupenerako bidea.

Mikel Irizar



Asier Guenetxea

SASIAIN sport

Errepide eta
mendiko bizikletak

**AUKERA
HANDIA**

Deba Garaiko
bizikleta-denda

Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63
ARETXABAETA




Batuta

Eusebio Gomez

Kaleko laguna zuen Rafael Ortubairi laguntzeko hasi zen Eusebio Gomez solfeoan. "Bost urte nituen eta Justo Munarriz zen irakaslea. Aita musikoa zen, Arrasateko bandako saxofoijole eta zuzendariordea, baina hasi Rafaeli laguntzeko hasi nintzen". Handik urte pare batera flautina jotzeari ekin zion eta beranduxeago bandan sartu. "Orduan bandak ezin zituen 33 partaide baino gehiago izan baina nire garaian tokia zegoenez, barrura egin nuen. Gainera aita bertako partaide izateak ere lagunduko zuen". Garai hartako Arrasateko bandak bazuen bere ospea. "Bergarakoak izen handiagoa izan duen arren, nire ustez orduko gurea hobea zen. Gogoratzen dut egun batean Franco etorri zela Monterroiko kontearekin. Guk saiotxo bat egin genuen eta Francori izugarri gustatu zitzaien. Horren ondorioz, Donostiako Victoria Eugenia jo beharrean aurkitu ginen".

Soldadu joan zenean, 1958an, amaitu zen Eusebio eta Arrasateko bandaren arteko harremana. "Solda-



du joaten ziren gehienek uzten zuten. Irabazi ere ez zen gehiegi irabazten eta neskalgunek ere lehen baino ordu gehiago eskatzen ziguten soldadutzatik bueltan".

Garai horretan hasi zen Orkesta Arrasaten, Pako Zerezedea, Felipe Vitoria, Jose Antonio Villar, Rafael Ortubai eta Sagastume lagun zituela. Partaide gehiago ere izan zituen orkestak, baina aipatutakoak dira gehien ibilitakoak. Bergarako Ariznoa modan zegoen eta han jo zuten 17 urtez, astean hiru aldiz lehenengo, birritan ondoren eta larunbatetan azkenik. Duela zazpi urte bukatu ziren askorentzat ahaztezinak diren Ariznoako gau haiek.

Afizioa mantentzen duen arren, ez dabil une hauetan musikaren munduan. Hori bai, Arrasaten banda bat du amets. "Kanpotik banda bat datorrenean izugarrizko nostalgia sortzen zait".

"Bergarakoak izen handia zuen, baina, gure banda hobea zen"

Txio txioak

Neocantes kamara-abestaldearen kontzertua San Juan Parrokian

Ostirala, hilak 27, arratsaldeko 8etan, Neocantes kamara-abestaldeak eskainitako kontzertua izango dugu San Juan parrokian.

Neocantes taldea bost ahotsek osatua dago: bi soprano, kontratenor bat, tenor bat eta baxu bat, eta zuzendaria German Torrellas da. Errenazimenduko eta Barrokoko musika kantatzen dute eta munduan zehar arrakasta garrantzitsuak lortu dituzte, batez ere, kritikoen artean.

Goikobalu abesbatzak aurkeztutako kontzertu honek bi zati izango ditu eta Espainiako kantutegi ezberdinetatik jasotako abestiek osatuko dute.

DDDP taldea Bidebietako Rock lehiaketan

Discípulos De Don Pablo talde arrasatearra aukeratua izan da Donostiako Bidebieta auzoan egingo den kontzertu-lehiaketarako. Lehiaketa honetara 26 talde aurkeztu ziren eta hauetatik bost aukeratu dituzte finalerako. Finala larunbatean izango da eta talde bakoitzak 40 minututako zuzeneko saioa egin beharko du. Saritzat, irabazleak single bat grabatzeko aukera izango du.



KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 25 77

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa. Tfnoa: 79 04 28

Gazte eta helduak euskaltegirako bidean

Umeak berriro eskolan hastea izaten da etxe askotan urteroko nobedadea: irakasle berria, liburu berriak, ordutegi aldaketak... Umeek eskolara joan behar dutela ez du inork dudan jartzen eta gogo onez edo txarrez denok joaten dira.

Arrasaten, gainera, urteak aurrera egin ahala, nagusitu egin dira B eta D ereduak, euskarazko ereduak hain zuzen. Pentsatzekoa da, beraz, belaunaldi berriak gero eta prestatuago datozela euskaraz "normal"ago izateko aurreko belaunaldiak baino. Nork zabaldu behar dizkie, ordea, euskarazko

zirkuitu horiek euskaraz integratu ahal izateko? Helduek, edo bestela inork ez.

"Orain umetatik euskeraz ikasten dabitzenak, gero..." egingo dutela pentsatu eta erderaz jarraitzea, edo "yo no sé, pero mis hijos ya..." esanda norberak egin ahal duena egin duela sinestea, oso jarrera samurrak dira, inora eramango ez gaituztenak.

Eta nola motibatu ikastera edo alfabetatzera derrigorrez joan beharrik ez daukatenak?

Esan ahal da, hizkuntza ofiziala dela euskara ere, lanerako lagungarri dela, seme-alabei laguntzeko mesedegarria... eta beste arrazoi instrumental mordo bat. Esan ahal zaie, bestalde, eus-

karak egiten gaituela euskaldun, ezin diogula geure izanari eta izenari traizio egin, euskarak ere baduela bere berea den mundua, erderaz ezin dena topatu... Burutik pasa ahal diren beste arrazoi!

Euskaltegien betebeharreko ere balitzateke, beraz, ikasleen motibazioak gero eta integratzaileagoak izan daitezkeen urratsak markatzea, jakinaren gainean norbanakoaren motibazio instrumental hutsez ez dagoela ikasketa-prozesu osoa burutzerik. Motibazioa gehitu asmoz, gauzak ondo egingo badira, dibertsifikatu egin beharko da eskaintza, bakoitzak dauzkan behar komunikatiboetara egokitu (maila kolokial, herriko hiz-

kera, alfabetatze bereziak).

Azken finean, helburua, euskaltegitik kanpora euskararekin jarraitu ahal izatea izango da, horretaraino iritsi arte nahiko motibazio izatea. Horrela, ba, euskaltegietako iharduera herriko dinamika osoarekin lotzera jo behar da. Egiten den guztia osotasun baten barruan ikusten ikasi.

Ez zaigu komeni ahaztea euskaldun elebakarrik ez gertatzen, euskaraz hitzegitea aukera kontua dela, norekin eta zertarako erabili bata edo bestea. Ahalik eta gehienetan euskarara jotzeko, beraz, gogoia behar batetik, eta norekin izan bestetik.

Atalataikoan

GAZTEEN II. ARGAZKI-LEHIAKETA



- Gaia: **GAZTEEN GRINAK**
- Partehartzaileen adina: **14-35 URTE BITARTEKOA**
- Modalitateak: **ZURI-BELTZEAN NAHIZ KOLORETAN**
- Sariak:
 - 1. 60.000 PTA**
 - 2. 40.000 PTA**
 - 3. 30.000 PTA****20.000 PTAko akzesita**

• Epea: **Irailak 27**



Eskoriatzan 210 lagun bizikletan

Aurreko domekan, hilak 15, harrigarria bada ere, 210 lagun batu ziren Eskoriatzako plazara. Benetan ikusgarria izan zen: plaza koloretsua bertan, opor ostean atzean utzitako lagunak agurtzeko parada izan genuen; aurpegi ezagun ugari. Bertan, inguruko jendea, arabarrak eta bizkaitar mordoa. Ikusten da bai, aspaldi honetan kirol honek sekulako indarra hartu duela.

Eguna goiz-goizetik ikusgarria izan zen. Ni neu Arrasatik abiatu nintzen eta hemendik harako bidea bizikletan egin nuen lasai-lasai muskuluak berotzeko, batez ere. Goizeko 9.10ean eman

zitzeaion hasiera probari. Hasieran denok pelotoian, tropelean, batu-batu eginik: Apotzara jo genuen polito, bide batez bazterrak miatuz. "Merezi zuen, aurreko astean eta astebarruan botatako euri jasen ondorioa alde guztietan: pago gehienek hostoak apurtuta; pistetan haritz amerikarren hostoak barreiatuak, inoiz edo gutxitan agertzen zaizun panorama horietakoa.

Apotzatik Asentzioñara hartu eta 10.45etan edo Kurtzetan geunden. Ondoren Jarindorako bidea hartu eta Zuberu, Albinako lautada zoragarria zeharkatu genuen. Bidean ez zegoen lupetzarik eta gozatzeko aukera polita izan genuen. Laster iritsi ginen Jarindoko erripetara: sekulako al-



datza, baina umore onean jo genuen. Gero dena laua eta beherantz Bentapiaraino.

Hamarretako ederra gertatu ziguten antolatzaileek: patata-tortilaren ogitartekoa, sagarra zenbat gura eta edateko ura, Kas eta Coca-Cola,

nahi zenuena aukeratzeko. Ordu bat eta hogeita minutu mendiz ez da asko, baina joanaldia zegoen oraindik probari amaiera emateko. Arlabandik Uxarrerako bidean zehar murgildu ginen, pagadi zoragarrien artean. Gustatuz gero, merezi du Bolibar inguruko baso bikain horrek; badakizu, oinez ere gustora ibiltzeko moduan dago.

Bolibartik Erañara igo eta handik Eskoriatzara jaitsi ginen. Goiz zoragarria igaro genuen; eguraldia lagun izan genuen eta lagunartean gainera. Agur bero bat hemendik Joseba, Joserra, Jabier, Miren, Jokin eta gainerako guztiei. Datorren urterako zita ere egin genuen.

K. U.



IKASTOLAREN

25. URTEURRENA

D E I A

Ikastola sortu zenetik 25. urte betetzen direla eta, gure mende laurden honetako historia osatzeko lehenengo urteetako materialik baduzu (argazki, bideo, aldizkari, liburu, etab.) mesedez, jo guregana. (Tfnoak: 79 26 40 eta 79 61 04)

Eskerrik asko.

Aste gazte

Emakume euskaldunen kualifikazio-maila, gizezkoenarekin konparatuz gero, oso apala da oraindik, eta, enplegu bat lortzeko izaten dituzten eragozpen larriez gain, laneratzeko aukera dutenean emakumezkoentzako ohizko lanbideetan sartzen dituzte.

Emakunde



tzantza arloetan ikerlanak eta sustapen teknikoko lanak burutzeko bekak. Eskatzaileak: goi-mailako eta ertaineko tituludunak. Epea: 91-10-15. EHAA 162, 91-08-13.

Ikastaroak

• *Hezkide Eskolak hainbat ikastaro monografiko antolatu du ikasturte honetarako.* Lehenak Larraulen izango dira, azaroaren lehenengo asteburuan (1-2-3): Adierazpena lantzeko ikastaroak: "Altxor bat zakarrontzian" eta "... ginela jolasten dugu?" Matrikula-epea: irailak 23-27. Prezioa: 8.000 PTA (Pentsio osoa).

Lehiaketak

• *"Gazteen grinak" II. Argazki-Lehiaketa.* Arrasateko Udalak antolatua. 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zu-

zendua. Zuri-beltz nahiz koloretan. Sariak: 60.000, 40.000, 30.000 eta 20.000 PTAko akzesita. Lanak aurkezteko epea: irailak 27.

• *"Jaen 1991" Literatur Sariak. Gaztelaniaz.* Modalitateak: a) Narrazioa b) poesia. Gai libre. Sariak: a) 2.000.000 PTA eta trofeoa b) 1.000.000 eta trofeoa. Lanak aurkezteko epea: irailak 27.

• *Zallako jendaurreko pintura-lehiaketa,* irailaren 29an. Teknika, neurri eta gai libre. Sariak: 60.000, 50.000 eta 40.000 PTA.

• *"Ernestina de Champourcin" II Poesia-Lehiaketa.* Euskaraz nahiz gaztelaniaz. Gaia: Euskal Herriko izaera, kezka eta bizipenak. Sariak: 200.000 PTAko sari bi. Epea: irailak 30.

• *"Pio Baroja eta kriminologia" Entseu-Lehiaketa.* Euskaraz nahiz gaztelaniaz. Sari bakarra: 100.000 PTA.

Epea: irailak 30.

• *"Elvira Castañon" Poesia-Lehiaketa.* Gaztelez. Gai libre. Lanek 250 eta 500 bertso bitartekoak izan behar dute. Sariak: 75.000 PTA, plaka eta lanaren argitalpena. Lanak aurkezteko epea: irailak 30.

• *"Hucha de Oro" XXVI. Ipuin-Lehiaketa.* Gaztelez. Ipuinek 3 eta 6 orrialde bitartekoak izan behar dute. Gai libre. Sariak: 1.000.000 eta urrezko itzulapikoa, 500.000 eta 25.000 PTAko 20 sari. Epea: irailak 30.

• *"Carta Puebla" XIII. Pintura-Lehiaketa.* Gai libre. Sariak: 300.000, 150.000 eta 75.000 PTA. Epea: irailak 30.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

ASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55

ETXEBIZITZAK

- **Andre euskalduna behar da etxeko lanak egiteko.** Goizez 8etatik 1ak arte. Tfnoa: 79 50 41.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** Amueblatua, gas naturala, 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrekoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- **Lokala alokatuko nuke ofizina bezala erabiltzeko.** Tfnoa: 79 93 06.
- **Gela alokatzen da bi oherekin.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Bi neska behar dira pisua osatzeko Bilbon,** (Logela konpartitua). Pisua handia eta polita da. Pertsona bakoitzak 15.000 PTA. Tfnoak: 79 24 08 Eva, eta 79 36 54 Maitane.
- **Konpartitutako pisu alokatuan logelarik libre badaukazu,** dei egin 77 06 90 tfnora.
- **Bergarako bi neskek pisua osatu nahi dute** Irunean. Tfnoa: 76 11 11.
- **Klasele pisua aurkitu nahi nuke Donostian.** Tfnoa: 79 99 82 (Goizez). Miren.
- **Bi ikasle pisu bila dabilza Donostian.** Dei egin 79 53 82 tfnora. ra bazkalordu edo afalorduetan.

- **Euskara, ingelesa eta OHoko klaseak ematen dira.** Tfnoa: 79 90 08.
- **Neska euskalduna etxeko lanak eta haurrak zaintzeko prest.** Zazpi urteko esperientzia Donostiako Udal haurtzaindegian. Dei egin 77 02 90.
- **Aretxabaletako "Josteko" Oihaldendak** esperientzia duen jostuna behar du. Tfnoa: 79 80 90.
- **Armoniako klaseak ematen dira.** 1. 2. 3. eta 4. kurtsoak. Talde txikiak 91-92 ikasturtea. Tfnoa: 79 27 88. Miriam.
- **Edozein lan egiteko prest nago.** Tfnoa: 79 61 05.
- **Emakumea behar da umea zaindu eta lanak egiteko.** Tfnoa: 79 13 04 eta 78 23 93.
- **Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko.** Tfnoa: 79 21 60.
- **Neska euskalduna etxeko lanak eta haurrak zaintzeko prest.** Zazpi urteko esperientzia Donostiako udal-haurtzaindegian. Dei egin 77 02 90 tfnora.
- **Klase partikularrak ematen dira:** euskara, gartzelania eta inglesa. Tfnoa: 77 04 98.
- **Itzulpen eta interpretari lanetarako kolaboratzaileak behar dira.** Edozein hizkuntza. Tfnoa: 77 04 98.
- **Emakumea etxeetan lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 84 66.

- **Seat 127a salgai, SS-M, errebisioa pasatua, estra batzuk ere baditu.** 100.000 PTA. Tfnoa: 76 61 05.
- **Paseoko bizikleta bi salgai ditut 15.000 PTA.tan** bakoitza. Dei egin 79 99 82 tfnora. arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Ur-berogailua egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 59 72.
- **Adria TY GRA karabana (4,10 m.) salgai.** Lau pertsonarentzako tokia, hozkailua etab. Garajea edukitakoa. Tfnoa: 79 93 06.
- **la berria den Atari 2600 kontsola bideoa salgai,** 160 joko ditu. Tfnoa: 78 31 51.
- **Amstrad Spectrum MSX eta PC-ko jokoak salgai.** Cassete-ko jokoan prezioa: 1-150, 2-200, 3-225 eta hortik aurrera 25 PTA gehiago joko bakoita. PC-ko jokuen prezioa galdetu (Oso prezio interesgarriak). Interesatuek dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- **la-la berria dagoen dibujorako mahaia salgai.** Tfnoa: 79 47 50.
- **Egoera onean dagoen R5 GTLa salgai, ITVa pasatua, SS-G (Merke).** Tfnoa: 79 37 40.
- **Hiru logela oso egoera onean salgai.** Prezio onean. Tfnoa: 77 04 98.

LANA

- **Fisika eta kimikako maisua behar da.** (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- **Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko** lituzke. Tfnoa: 79 99 17. Mª Jesus.
- **Neska prest lanak egiteko.** Dei egin 79 49 05 tfnora.
- **Klase partikularrak ematen dira (Fisika, Kimika eta Matematika).** Dei egin 77 13 95 tfnora.
- **Andre euskalduna etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 07 73.

SALEROSKETAK

- **Izozkitegiak erakusteko bitrina, Salbat labea estrenatu barik eta jogurtak eta esnea erakusteko bitrina salgai oso prezio interesantean.** Dei egin 79 23 58 eta 77 00 91 Tfnoetara. Rosi.
- **Lau edo bost lagunentzako kanping-denda salgai,** aluminiozko tuboekin. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.

DENETARIK

- **Norbaltek, larunbatak 13, arratsaldean, deitu** zidan galdu duen urrezko eskumuturrekoagatik eta ez nengoen etxean. Mesedez dei egin berriro eta eskerrik asko (eskumuturrekoak harri urdin batzuk zeuzkan). Tfnoa: 79 28 80. Axen.
- **Zorionak Kris, Arantxi, Felix eta Iñaki!** Zer moduz sentitzen zarete gurasoak izanda? Zuetaz pentsatzen dut maitekero. Sharryn. N.Y.
- **Zorionak Julia eta Aitor Alberdiri aitamel, eta ongietorria Mikeltxori! Sarah eta Iñaki.**



ARRASATEN HILDAKOAK



Angel Epelde Arano,
irailaren 11n. 72 urte.

Pablo Aranzeta Gorosabel,
irailaren 15ean. 91 urte.

Nicolas Garai Etxabe,
irailaren 15ean. 64 urte.

Sebastian Zugasti Legorburu,
irailaren 17an. 65 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Silvia Paez Mondragonesa Grafikagintzako

- **Orriak, kuadrikulatuak ala zuriak?** Zuriak.
- **Larrosak ala krabelinak?** Larrosak.
- **Boligrafoa ala luma?** Lumarena idazkera jantziagoa da.
- **Mondragoe ala Arrasate?** Berdin zait.
- **Belarritakoak ala eraztunak?** Eraztunak.
- **Prakak ala gonak?** Prakk erosoagoak dira, baina gonak gehiago gustatzen zaizkit.
- **Bikinia ala osokoa?** Osokoa.
- **Mutilak, morenoak ala ilehoriak?** Sinpatikoak eta atseginak badira berdin zait.
- **Perfumea ala kolonia?** Kolonia freskoagoa da.
- **Izozkia, marrubizkoa ala txokolatezkoa?** Helatua ez zait gehiegi gustatzen, baina aukeratzekotan marrubizkoa. Bestea, gozoegia da.
- **Eguzkipean ala gerizpean?** Gerizpean, eguzkia ezin dut jasan.
- **Oporrak, Donostian ala Pirineotan?** Donostia polita da, batez ere hondartza, baina Pirineotara joango nintzateke.
- **Permanentea ala naturala?** Nik beti permanentea daramat, baina ile naturala politagoa da.
- **Txanpaina ala Errioxako ardoa?** Ze zaila! baina, tira! Errioxako ardoa.
- **Parker ala Inoxcrom?** Parker.
- **Ezpainak pintatuta ala barik?** Pintatu barik.
- **Argazkiak, koloretan ala zuri-beltzean?** Koloretan, errealitatea den bezalako agertzen da. Ni? Ez naiz batere fotogenikoa.
- **Ezkontza, zuriz ala bestela?** Zuriz ezkondu nintzen, baina orain bestela jantziko nintzateke.
- **Lo pijamaz ala kamisoiatz?** Kamisoiatz, erosoagoa da.



Bertsotan

Gobernuan haserre

EA bidali dute gure gobernutik bik erabaki eta ez dute beldurrik haientzat esaerak ez dio gezurrik: "Lagun txarrakin baino hobe da bakarrik".

Jaurlaritzatik dator hainbeste errita, abertzale artean eginik kritika, lehengo tratua hura gaur dago hautsita, badago zer konpondu etxetik hasita.

JON IÑAKI IZARZELAIA



ITURRIOTZ taberna

GIRORIK
JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



Arrasaten 1956ko apirilaren 15ean

Gutxitan irten da Arantzazuko Amabirjina bere txokotik. Historian zehar hiru aldiz jaitxi

behar izan zuten Oñatira Arantzazuk jasan zituen suteen ondorioz. 1553, 1622 eta 1834 urteetan gertatu zen hori. Hortik aurrera, behin bakarrik izan dugu Arantzazuko Ama bere santutegitik kanpo ikusteko aukera.

1950 urtean basilika berritzea erabaki zuten frantziskotarrek. Saiz de

Oiza eta Luis Laorga arkitektoek hartu zuten lana beren gain.

Basilika amaitzeaz zegoela, 1955 urtean, hasi zen Urte Jubilarra, indulgentziaren urtea. Urte horretan zehar, Gipuzkoako arziprestazgo guztietan zehar ibili zuten Amabirjina: Bergara, Azpeitia, Hernani, Donostia, Arrasate...


Arrasatera, 1956ko apirilaren 15ean etorri zen Amabirjina. Herriko lau pilotarik andero egiteko borondatea azaldu zuten eta hala egin, zuriz jantzita gainera.

Eskumako anderoak Santiago Etxeberria, "Zurdo de Mondragon", eta Tadeo Azkarate, "Mondrago-

nes"en semea ditugu, aurrean lehenengo eta atzean bestea. Ezkerrekoak, berriz, Joxe Arriaran aurrekoa eta bere anaia Pako atzekoa, ikusten ez den arren. Hauekin batera doaz Aita Garaialde, Aita Arrue eta Aita Unanue frantziskotarrak, besteak beste.

Egun horretan elizkizun bat ospatu zen Franziskotarren elizan eta ondoren prozesio txiki bat. Ikus daitekeen bezala, Amabirjina oraindik lehen zituen arropa eta apaingarriekin dago. Hala ere, Urte Jubilarra amaitu eta laster kendu zizkioten guzti horiek eta orain dagoen moduan utzi.

**PUB
HAIZEA**




ENARA
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala, 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



22 IGANDEA

9.30 **Mondra Sport.** Mondra-Beasain partiduaren ordu erdiko laburpena, aurrerantzean igandero ikusgai izango duzuen saio berezia.



24 ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan **Berriak.** Egunean zehar jasotako albisteak.
9.15 **Erreportaiak.** Aste honetan, Igandean Oñatin jokatu den artzai-txakurren txapelketari buruzko lana izango duzue ikusgai.




26 OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan **Berriak.** Egunean zehar bildutako albisteak.

27 OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan **Berriak.** ATBren albistegia.
9.15 **Erretratoa.** J.R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa-saioa. Gonbidatua: Jose Mari Balanzategi, Aizkora, Udaletxeko langilea.



23 ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan **Berriak.** ATBren albiste emanaldia.
9.15 **Mondra Sport.** Igande gaueko saioaren errepikapena.


25 ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan **Berriak.** ATBren albistegia.
9.15 **Musikaldia.** Larunbatean Ruper Ordorika eta Mikel Laboak Bergaran emango duten saioaren laburpena.

Eskoriatzako IRAKASLE ESKOLAK , LAN-SAILaren babespean, ondorengo ikastaroa antolatu du:

“BIDEOAREN PRODUKZIO ETA HUSTIRAPENA FORMAKUNTZA ALORREAN”

- **Hartzaileak:** Ikusentzungailuen arloan lehendik trebaturiko 15 langabetu.
- **Iraupena:** 600 ordu. Urriak 14tik otsailak 28ra, egun osoz.
- **Aurre-inskripzioa:** Eskoriatzako Irakasle Eskolan, irailak 27ra arte.
- **Informazioa:** 943-79 04 40 telefonora deituz emango da.



Berriak, egunero!

Aldaketa-garaia bizi dugu ATBn. Datorren astetik aurrera, egunero aurkituko gaituzue zuon etxeetan. 8etan, 8.30etan eta 9etan gure informatiboa izango duzue ikusgai, hiru aldiz errepikatua bakoitzak komeni zaion orduan ikus dezan.

Badakizue, beraz. Herrian gertatutakoaren berri jaso nahi baduzue, etorri egunero ATBra!!

Telebegi

Aurreko astean Andoni Urzelaik zutabetxo honetan azaldukoari erantzun nahi nioke.

Telebista pribatuak "zaborra" direla eta Arrasaten sar ez daitezen Muru tontorrean bonba jartzea proposatzen zuen.

1) Nik idealik bikainena izanda ere, ba al dut eskubiderik hori jendeari ezarri edo inposatzeko? Nor naiz ni inoren "salbatzaile" bihurtzeko?

2) Ez ditut kate pribatuak ezagutzen eta ezin esan onak edo zaborrak diren; baina ezagutzen ditut publikoak, eta, zalantzarik gabe, horiek ere zaborra asko ematen dute, eta sarritan gure herriaren euskal nortasunari mesede gutxi egiten.

3) Zuk pribatuen kontra bonba jarri nahiko zenuke. Eta zer gertatzen da horiek berdin pentsatu eta ATBri beste bat jartzen badiote?

4) Lagun maitea, kasu honetan behintzat ez dut sinesten lehergailuen eraginkortasunean, eta bai heziketarenean. Zeuk esaten zenuen bezala «ongi aukeratu eta begi kritikoz ikusi ikusten duguna».

I. MENDIGUREN

Telebelarri

◆ Ziur naiz datorren urteko finala ere Retegiren aurka jokatuko dudala. Nork irabaziko duen? Auskalo, Julian oso da pilotari handia, baina..."

Ladis Galartzak **Berriak** saioan

◆ Bi hilabete baino lehen aldaketa izangoda Arrasateko Alkatetzan

Aitor Orobengoak **Berriak** saioan

Igandero. Mondra ATBn!

Zoriona duzue Arrasateko futbol zaletuok. Aurrerantzean, igandero kirol-saioa izango duzue zuon pantailetan. Mondrak Atxabalpen ala kanpoan jokatu, guk partidu guztiak filmatu eta ordu erdiko laburpenak eskainiko dizkizuegu. Igandero, 9.30etan. Ez hutsik egin, beraz. Golak, golak dituzue zain ATBn!!





ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Energiaz gainezka egongo zara. Alferkeriaz edo, alde batera lagata zeneukana aurrera ateratzeko momentu egokia duzu. Noizbehinka lurrera begiratu estropezu egitea suerta liteke eta.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Bizipoza darizu alde guztietatik, dena zuk pentsatu edo espero bezala atera zaizulako. Ez zaitez harropuztu badakizu zein erraz pasatzen zaren mutur batetik bestera eta.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Gauza berriak hasteko egun aproposak izango dira datozenak, asmatu egingo duzu gainera. Amodio kontuak beste baterako laga itzazu ez bait zara oso sentibera egongo.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Irudimena baino ez daukazu egunotan, baina nahi eta ezinka zabilza. Tristuraren bat daukazu barruan etxean izandako tirabiraren batengatik. Ez arduratu.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Jupiter zure zeinuan sartu da eta orain arte ezinaren poderioz edo alde batera lagata zeneukanarekin hasteko momentu egokia da. Amodio kontuetarako ere balio du lehentxoago esanak.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Gogorregia zara zeure buruarekin. Gogoz kontra jokatzeko duzu ia beti besterena hobe izango delakoan. Lagaiozu zeure intuizioari berak eskatutakoa egiten. Zure onerako izango da.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Erbakiren bat hartu beharrean izango zara eta zirt edo zart egiteko unerik ez duzu aurkituko. Zeure onetik ez ateratzea izango da egin beharko duzuna. Lasaitasuna lortzen saiatu.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Norbait zeezer eskaini nahian ibiliko zaizu hor nonbait. Benetan kontuan hartu beharrekoa izan da eskainiko dizuna. Etorrizunerako aurrerabideago hortik suertatzea litekeena da.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Lagunartea izango da benetan arduratuta edukiko zaituena. Besteren arteko tirabirak konpondu nahian ibiliko zara. Gustora egongo zara, arlo hori bait da benetan gustoko eta menderatzen duzuna.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Benetan ahul zaude, Cancer. Besteekiko tirabirak ebitatzea komeni zaizu ez bait zaude iskanbilatarako. Luze lo egin eta ondo jan nerbioek bereganatu egiten bait zaituzte.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Tentsioan zaude azkenaldi honetan. Baretzea behar-beharrezkoa izango zaizu, gogorkeriara jotzeko joera bait daukazu. Errua zeurea da eta ez besterena. Zure esku dago.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Energia gehiegi gastatu duzu azkenaldi honetan, Piscis. Atsedentxoren bat hartu beharko zenuke batera kargatu eta berriz ekiteko. Beteta sentitzen zara egin duzunagatik.



SAIOA

gimnasioak antolatutik:


"Saloiko dantzen
hartapen-ikastaroa"

- Baltsea
- Tangoa
- Foxa
- Sanba
- Kubako runba
- Txa txa txa
- Pasodoblea

Gainera: **AEROBIK**eko klaseak

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu
79 97 31 tfno.ra edo pasa gimnasialekutik.
Kontzezino kale estalia, ARRASATE
Tfnoa: 79 97 31

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

ARRASATE PRESS



77 08 15

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea, 1 -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15

ARRASATE 91 LEHIAKETAK

Heldu eta gazteentzat

Ipuina / Poesia / Bertso-paperak /
Komikia / Argazkia

Sari garrantzitsuak!

Lanak aurkezteko epea azaroak 4ra arte.



AED. Pablo Uranga 4, etxabehea,
20.500 Arrasate Tfnoa: 79 54 46


Iokin..... Zaitegi.....

**V. itzulpen laburren
sariketa**

- Gaia: "Energi iturrien bilakaera:
etorkizuneko energia"
- Sariak: 1. saria: 250.000 PTA
Akzesitak: 50.000 PTA
- Epea: 1991ko azaroaren 4a
baino lehen.

AED. Pablo Uranga 4, etxabehea,
20.500 Arrasate Tfnoa: 79 54 46





UDA HONETAN

KADETT


150.000

ptako.

BEHERAPENA

Uda honetan eros ezazu Opel Kadett bat eta baliozaitez eskaintza paregabe honetaz: Kadett gamako edozein ibilgailu erostean 150.000 ptakoa. beherapena.

Uda honetan gozaezazu Opel Kadett -arekin. 150.000 pta. gutxiago.



Betidanik ekologikoak, nahi duzunean. Berunik gabe.



Zain gaituzu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Kontzesionari Ofizialak

Iparragirre. Tfnoa: 72 33 71

OPEL 
Hobeak esperentziaz